

1.602 milioi euro bideratu ditu Kutxabankek hipoteka-maileguetara, % 15,2 gehiago

Euskadin sinatutako hipoteketan interes-tasa aldakorra izan da nagusi berriro, finkoaren aurretik

- Interes-tasa finko eta mistoko maileguak Euskadin sinatutako hipoteka berrien % 43 dira eta Estatuan sinatutakoen % 55, kasu bietan, merkatuaren batez bestekoaren oso gaineratik
- 10 hipotekatatik 9 lehendabiziko etxebizitza erostera bideratzen dira, batez ere bigarren eskukoa, eta batez beste 53 urteko antzintasuna duena
- Kutxabankek Euskadiko merkatuko lidergoa berretsi zuen 2017an, orotara 6.173 eragiketa sinatu ziren eta merkatuan % 38ko barneratze-maila izan du
- Hipotekadun berriaren argazki finkoa 35 urtetik beherako bikote bati dagokio, bere ohiko etxebizitza bigarren eskukoa erosten duena, batez besteko hipoteka 131.400 eurokoa izaten duena, eta 26 urteko amortizazio-epealdia

2018ko otsailaren 20an

2018ko otsailaren 20an.- Interes-tasa finkora edo mistora sinatutako hipoteken pisuak, sinatu diren guztien artean, egonkortze zantzu argiak erakusten ditu 2017aren amaieran, ia urte osoan goranzko joera etengabeari eutsi ostean, maximo historikoak lortu baitziren.

Kutxabankek eta Tasazioen Euskal Zerbitzuak (**Servatas**), tasazioen arloko Euskadiko enpresa nagusiak, urtero elkarrekin egiten duten azterketak erakutsi duen ondorio nagusienetako bat da.

Joera aldaketa ez da modu berean gertatu Kutxabankek bere hipoteka-jarduera garatzen duen merkatu guztietan. **Euskadin** mota horretako hipoteken aldeko joerak **ia aldaketarik gabe irauten** duen bitartean, gainerako **lurraldeetan orekatzen** hasi da.

Euskadiren kasuan, **bezeroen % 43k** egonkortasun handiagoa ematen duten finantzaketa-formulen alde egin zuen, ez baitaude tasen etorkizuneko igoeren mende. Beste era batera esanda, 2017ko hipotekadun berrien % 53k tasa tradizionala aukeratu zuen, **Euriborraren bilakaerara** erreferentziatuta. 2016an, behin betiko abiada gertatu zen urtean, tasa finkoko eta mistoko maileguak ehuneko oso antzekoetan mantendu ziren, % 44ren inguruan.

Bilakaera positibo horri esker, Kutxabankek sendotu egin du bere **lidergo posizioa Euskadiko hipoteka-merkatuan, % 38ko kuotari** eutsi baitio. Hau da, gauzatutako **hamar hipotekatatik lauk** Finantza-talde horren eskaintza aukeratu zuen. Guztira, Kutxabankek **1.602** milioi euro bideratu zuen 2017an hipoteka-maileguetara, aurreko urtean baino **% 15,2 gehiago**.

Hedapeneko lurraldeei dagokienez, horietan ere hipoteka-kokapen sendoa du Kutxabanke, argazki finkoa desberdinxeagoa da.

Hasierako ondorio batek erakusten duenez, Kutxabanken hipoteka-eskaintza aukeratu zuen bezeroen **erdiak baino gehiagok**, zehatz-mehatz **% 55ek, tasa finkoko edo mistoko** hipoteka sinatu zuen. Hipoteka berrien erdia baino gehiago bada ere, datua labur geratzen da du 2016an lortutakoaren aldean, urte historikoa izan baitzen finantzaketa-formula alternatiboen abiadan, eta ehuneko hori **% 65eraino** joan zen.

Edozein kasutan, Kutxabanken datuek aise gainditzen dute merkatuaren portaera. **Estatistika Institutu Nazionalaren** urteko txostenaren arabera, 2017an, Espainian tasa finkora sinatu zen hipoteka kopurua **% 35 inguruan** kokatu zen. Kutxabanke lortutako kuotatik oso urrun, edonola ere, urte honetara arte ezezaguna zen ehunekoa da eta.

Hipoteka gazteak % 16 egin du gora

Ziklo ekonomikoaren aldaketa, hipoteka-merkatuaren susperraldia eta egoera globalean konfiantza handiagoa izatea 35 urtetik beherakoei eman zaizkien hipoteken igoera esanguratsuan islatu dira, bere osotasunean **% 16** hazi baita iazkoen aldean.

Kolektibo horren jarduera indartsuak euren etxebizitza finantzatzea erabaki zuten pertsonen batez besteko profilaren antzekoa du. Izan ere, Kutxabanke Euskadin sinatutako hipoteka guztien **% 37 kolektibo horri dagokio**. Hartara, kontratatzailearen batez besteko ezaugarriak Kutxabanken ohiko profilaren lerrotik doaz.

Profila 35 urtetik beherako bikote gazte bati dagokio, bere ohiko etxebizitza erosten duena, erakundeak 131.400 euroko mailegua eman diona, bigarren eskuko pisu baten erosketa finantzatzeko, 26 urteko amortizazio epealdiarekin.



<35
urteak

131.400€

bigarren eskuko pisu baten
erosketa

26 urteko amortizazio
epealdia

Ohiko etxebizitza eta bigarren eskukoa

**Erositako
pisuek 53
urteko batez
besteko
antzinatasuna
zuten**

Kutxabank / Servatas txostenak islatzen duenez, bigarren eskuko etxebizitzek bultzatu dute higiezin merkatua eta 2017an **% 5,4ko** igoera izan zuen Euskadin.

Kutxabanke **6.173 hipoteka** sinatu zituen EAEn, **823,3 milioi** euroko zenbatekoaz, 2016an baino **% 8,3 gehiago**. Maileguen **% 88 ohiko etxebizitzaren** erosketara bideratu zen, bigarren etxebizitzak erostera bideratu zen **% 8ren** aldean.

Finantzatutako pisuen **batez besteko antzinatasuna** 53 urtetik gorakoa da, **54 urteraino** hazi da Gipuzkoaren kasuan, eta **52 urtetan** eutsi dio Bizkaian. Etxebizitzen batez besteko adina, Araban, 49 urtetan dago.

Kutxabankek 2017an etxebizitza babestua erostera bideratutako finantzaketari dagokionez, lurraldeka, % **47,9 Bizkaiari** dagokio, % **28,6 Gipuzkoari** eta % **23,5 Arabari**.

Etxebizitza-tipoa lurraldearen arabera

Etxebizitza-tipo	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batez besteko antzintasuna	49 urte	52 urte	54 urte
Azalera m2	110	92	89
Logelak	2,7	2,6	2,6
Bainugelak	1,6	1,4	1,4
BOE %	23,5	47,9	28,6

Hiru etxebizitzatik bat eskura ordaintzen da

Batez besteko mailegurik garestiena Gipuzkoak du: 139.000 euro

Etxebizitza kopuru handiena banku-finantzaketaren bidez erosten den erkidegoetako bat Euskadi da, zehazki, % 65, Notariotzaren Kontseilu Nazionalak argitaratutako datuen arabera. Kontrako aldean, **hiru etxebizitzatik bat eskura ordainduta erosi zen** 2017an. Testuinguru horretan, Kutxabankek emandako batez besteko maileguak erorketa txiki bat izan zuen, **131.400 eurotan** kokatu arte.

Lurraldeka, batez besteko hipoteka altuenak **Gipuzkoari** dagozkio, **146.000** eurotik gorakoak baitira, eta **Arabari**, **123.000** eurotik gorako batez besteko mailegua du eta. Lurralde bi horietan sinatutako hipoteken batez besteko zenbatekoan igoera txiki bat islatzen dute datu horiek, 7.000 eta 9.000 euroko igoerak izan baitituzte, hurrenez hurren, 2016koen aldean. **Bizkaia** da hipotekaren zenbatekoari aldaketarik gabe eutsi dion lurralde bakarra, **136.000** euroko batez besteko maileguaz.

Kutxabanken bezeroek erositako pisu gehienak Euskadiko **hiru hiriburuetan daude**. Lurraldearen arabera, Araban saldutako etxebizitza guztien % 70 **Vitoria-Gasteizko** etxebizitzetara dagokie. Ehuneko hori jaitsi egiten da **Bilbo eta Donostiaren** kasuan, % 29 eta % 31 baitagokie, hurrenez hurren.

Barakaldo (% 11), **Santurtzi** eta **Getxo** (% 4,1) dira, orain arte bezala, Bizkaian jarduera handiena duten udalerrriak, eta Gipuzkoan, bere aldetik, **Irun** (% 6,8) eta **Erreneria** (% 6) dira, orain arte bezala, salerosketa indize altuena duten herriak.

Finantzatutako ehunekoari dagokionez, Kutxabanken bezeroen % 86k ez du tasazio-balioaren % **75 gainditzen, eta amortizazioaren** batez besteko epealdia **26 urtetan mantentzen da.**

1.602 M euro

2017an hipoteka maileguetara bideratutako zenbatekoa


6.173 >

onartutako eragiketak

%88

lehen etxebizitzak

Adina (urteak)



Erabilera

